

**2021EKO URRIAREN 28AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita zortzia

**HILABETEA:** Urria.

**URTEA:** Bi mila eta hogeita bat

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa.

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** LEIRE ARTOLA UGALDE

**BILDUAK:**

EAJ-PNV

- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ (EAJ-PNV)
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO
- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

**IDAZKARIA:** Itziar Aroztegui Apaolaza

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak eta Aitziber Yurrebaso Irazustabarrena andreak, itzulpen lanetan.

**1.- AURREKO AKTA.** 2021-09-30

Aktaren berri eman ondoren, alderdi sozialistako bozeramaileak esan du, ethez etheko kontratua luzatzeari buruzko puntuaren bozketan, gaztelaniazko testuan nahiz eta emandako botoen zenbateko ondo egon, aurkako botoetan bakarrik aipatzen da Beasaingo EH Bildu udal taldea eta falta da adieraztea, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak.

Zuzenketa ontzat eman da eta hori kontuan izanda, aho batez onartu da akta.

**2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

A.- KREDITU ALDAKETA, 7. KREDITU TRANSFERENTZIEN ESPEDIENTEA.  
2021TRFR0007

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, hau da:

*“1.- 7. Kreditu Transferentzien bidez 23.000,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.*

*2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako aldaketa Kontuhartzailetzak kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea,*

**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA**

**Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0110.227.932.00.09	Zergabilketa egikaritzailera	97.905,00	23.000,00	74.905,00
	<b>GUZTIRA ...</b>	<b>97.905,00</b>	<b>23.000,00</b>	<b>74.905,00</b>

**Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
0110.626.920.00.01	Informazio prozesuetarako ekipoak	22.352,00	5.200,00	27.552,00
0350.622.342.30.02	Igartzako futbol zelaia belar ald.	0,00	6.800,00	6.800,00
0350.601.134.10.01	Irisgarritasuna: Naf. Etorb.-Oriam.	303.973,34	11.000,00	314.973,34
	<b>GUZTIRA ...</b>	<b>326.325,34</b>	<b>23.000,00</b>	<b>349.325,34</b>

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Beno pentsatzen dut belar aldaketa horretarako eman dirulaguntzarekin kontatuko dela. Igartza futbol zelaia irekiena da erabilera aldetik eta hori bermatzen jarraitzea garrantzitsua iruditzen zaigu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Bai horrela da, Loinatzko futbol zelaia berri zenean Foru Aldundia eta Federaziotik dirulaguntza izatea espero genuen eta ez zen iritsi, baina oraingo honetan proiektua egikaritzea dirulaguntzaren baitan planteatzen dugu eta guk ere irekia izatearen aldeko apustua egiten dugu.”

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

**B.- TAXI-ZERBITZUAREN 2022KO TARIFAK. 2021EKBO0070**

Ezagutzera eman da antolakuntza batzordearen proposamena:

**“GAIA.- Taxi-zerbitzuaren 2022ko tarifak.**

*(AGITAX) Gipuzkoako Taxisten Elkarteak, Goiekiren bidez, Goierriko erregimen bereziko eremuan aplikatzeko 2022 urterako tarifen onespena eskatu du.*

*Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, Antolakuntza Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egiten dio:*

**Lehenik.-** *Gipuzkoako Taxisten Elkarteak proposatutako kostuen estudioaren onspena.*

Bigarren.- Goierriko eskualdeko eremuan aplikagarri izango diren Agitaxek Goiekiren bidez proposatutako 2022rako ondorengo tarifen onespena, indarrean daudenekiko % 3,3ko igoerarekin.

<b>2022ko HIRI BARRUKO TARIFA</b>			
	<b>Abiasaria</b>	<b>Ibilitako kilometroa</b>	<b>Itxarote ordua</b>
<b>Tarifa 1*</b>	3,7433 €	1,1719 €	22,3832 €
<b>Tarifa 2**</b>	3,7433 €	1,8690 €	35,1790 €

\* Lanegunetan 07:00tik 22:00arte / Laborables: de 07:00 a 22:00

\*\* Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 07:00 arte. Bai igande eta araudi autonomiko eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larubatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan / Esta tarifa será aplicable todos los días, desde las 22:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados y los días 24 de diciembre y 31 de diciembre.

Hirugarren.- *Goiekiri akordio honen berri ematea.*”

Jarraian Alkate andreak (EAJ-PNV), esan du 20 urte igaro direla GOIEKIK taxisten elkartearekin hitzarmena egin zuenetik eta antolakuntza batzordean esan bezala, hitzarmen horren gorabeherak jakiteko edota berritzeko, gaiari helduko zaiola behar diren bilerak eginez.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Bai, hitzarmen hori zaharkitua egon daiteke eta agian orain proposamen berriak egon daitezke

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

### **3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

A.- DIRULAGUNTZAK. KULTUR SORKUNTZA DINAMIZATZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK. 2021BOCU0021

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena:

“GAIA: Kultur sorkuntza dinamizatzeako dirulaguntzak. Oinarri arautzaileak

**AURREKARIAK:**

*Beasaingo Udalak kultur arloko hainbat esparrutan duen jarrera sustatzailea ez da berria. Horren adibide urtero hitzarmen desberdinak medio aurrera eramaten diren ekitaldiak, emanaldiak, erakusketak etab...*

*Kultur sorkuntzari dagokionez, Beasaingo Udaleko aurrekontuetan espreski jasotzen diren beka, sari edo bestelako laguntzak hauek dira:*

- *Matematika argazki lehiaketa-sariak.*
- *Beasain idazlehiaketa-sariak.*
- *Loinatz jaietako kartel lehiaketa-sariak.*
- *Beasain Hiria argazki lehiaketa-sariak.*
- *Igartza Literatur Sorkuntzarako Beka Saria*
- *Aire Zabaleko margo sariketa*
- *Igartza Musika Beka*
- *Udal egutegia eratzeko argazki lehiaketa*

*Hala ere, udalaren nahia da kultur sorkuntzaren beste esparru batzuei laguntzak ematea. Horregatik, 2021eko aurrekontuan horretarako partida bat aurreikusi da.*

*Sorkuntza hori sustatzeko eta COVID-19 pandemiak kultura-sektorean sortutako ondorioak arintzen laguntzeko, oinarri hauek prestatu dira.*

*Ondorengo kontuan hartuta:*

#### **LEGERIA APLIKARRIA**

- *Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, eta, zehazki, 17,1 20), 26) eta 27), honako gai hauetan Udalari eskumenak ematen dizkiotenak:*
  - *Kultura eta kultur jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.*
  - *Euskara sustatzeko eta erabiltzeko politikak normalizatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko planak, 7. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.*
  - *Genero-berdintasunerako eta ekitatea sustatzeko politikak antolatzea eta kudeatzea.*
- *Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.*
- *Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO).*
- *Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2020-2022 (2. Helburu estrategikoa: Udalerriko ekintza kulturalak babestea. 2.2. Diru-laguntza ildoak: Kultur sorkuntza sustatzea).*
- *4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.*
- *3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa.*

**PROPOSAMENA:**

*Herritarrek batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:*

Lehenik: 2021 urteko kultur sorkuntza dinamizatzeko dirulaguntzen oinarriak onartzea.

Bigarrenik: Deialdi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Estamos de acuerdo. Se han redactado a propuesta de todos.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Oinarri hauek elkarlanen emaitza dira eta gustatuko litzaiguke gelditzeko etorritakoak izatea.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Bai, gelditzeko etorritakoak dira eta horregatik hurrengo urteko aurrekontuan ere aurreikusi da kontusaila dirulaguntza horiek emateko.”

Horren ondorioz, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

KULTUR SORKUNTZA DINAMIZATZEKO DIRULAGUNTZAK. OINARRI ARAUTZAILEAK.

AURREKARIAK

Beasaingo Udalak kultur arloko hainbat esparrutan duen jarrera sustatzailea ez da berria. Horren adibide urtero hitzarmen desberdinak medio aurrera eramaten diren ekitaldiak, emanaldiak, erakusketak etab...

Kultur sorkuntzari dagokionez, Beasaingo Udaleko aurrekontuetan espreski jasotzen diren beka, sari edo bestelako laguntzak hauek dira:

- Matematika argazki lehiaketa-sariak.
- Beasain idazlehiaketa-sariak.
- Loinatz jaietako kartel lehiaketa-sariak.
- Beasain Hiria argazki lehiaketa-sariak.
- Igartza Literatur Sorkuntzarako Beka Saria
- Aire Zabaleko margo sariketa
- Igartza Musika Beka
- Udal egutegia eratzeko argazki lehiaketa

Hala ere, udalaren nahia da kultur sorkuntzaren beste esparru batzuei laguntzak ematea. Horregatik, 2021eko aurrekontuan horretarako partida bat aurreikusi da.

Sorkuntza hori sustatzeko eta COVID-19 pandemiak kultura-sektorean sortutako ondorioak arintzen laguntzeko, oinarri hauek prestatu dira, honako hauek kontuan hartuta:

- Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, eta, zehazki, 17,1 20), 26) eta 27), honako gai hauetan Udalari eskumenak ematen dizkietenak:
  - Kultura eta kultur jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
  - Euskara sustatzeko eta erabiltzeko politikak normalizatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko planak, 7. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.
  - Genero-berdintasunerako eta ekitatea sustatzeko politikak antolatzea eta kudeatzea.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO).
- Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2020-2022 (2. Helburu estrategikoa: Udalerriko ekintza kulturalak babestea. 2.2. Diru-laguntza ildoak: Kultur sorkuntza sustatzea).
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa.

## 1. XEDEA

Beasaingo udalerrian kultura sorkuntza sustatzeko dirulaguntzak eskatzeko eta emateko prozedura-baldintzak arautzea.

## 2. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN PROIEKTUAK / JARDUERAK

Diruz laguntzeko modukotzat joko dira honako proiektu-mota hauek, betiere euskararen presentzia modu batera edo bestera bermatzen bada:

1. Sorkuntza eszenikoa: edozein motatako testu eszenikoen dramaturgia, dantza-koreografiaren diseinua, txotxongiloen lanak (testuak eta pertsonaiak sortzea).
2. Obra bisualak eta plastikoak sortzea, honako disziplina hauek barne hartzen dituztenak: eskultura, forja, bustigintza, urregintza, grabatua, ilustrazioa, artisautza eta oihalgintza.
3. Ikus-entzunezko lanak sortzea: ikus-entzunezko proiektu artistikoen gidoiak idaztea (publizitatekoak edo sustapenekoak ez direnak), edozein formaturako, eta pieza artistikoak filmatzea eta editatzea.
4. Musika edo soinu-konposizioa: partiturak idaztea, edozein motatako musika lanak sortzea, pieza artistikoak grabatzea eta editatzea.

5. Ekintzailletza edo ikerkuntza proiektuak: aurreko modalitateetako batean sartzen ez diren proiektuak, kultura sektorearen baitan garatzen direnak, ingurune digitalari, medio berriei eta arte digitalari lotutako proiektuak lehenetsiz.
6. Haur eta nerabe literatura helburu duten proiektuak: Haur zein nerabeentzat sorturiko ipuin edo kontakizunak. Lanak liburu batean argitaratzeko modukoak izan behar dira.
7. Poesia: Sortzaileek poesia arloan sortu ditzaketen lanak. Lanak liburu batean argitaratzeko modukoak izan behar dira.

### 3. DIRUZ LAGUN EZIN DAITEZKEEN PROIEKTUAK / JARDUERAK

"Onarpen eta Balorazio Batzordeak" eskumena izango du, kasuz kasu eta alde zehatzetarako aurretik justifikatuta, diru-laguntzen eskaerarako bat baztertzeko, baldin eta:

- Proiektu bat ez bada, erabat amaitutako obra bat baizik.
- Ez badira sorkuntza propioko proiektuak, baizik eta lehendik dauden lanen egokitzapenak edo itzulpenak.
- Eskatzaileak 28.000 euro gordin baino gehiago jasotzen baditu urtean, kultura-eremuren batetik etorriak.
- Genero-identitatea eta haren edukia diskriminatzen dituzten proiektuak badira, pertsonen eskubideak eta askatasunak urratzea ekar dezaketenak.
- Kirol-jarduerak edo irakaskuntza-programei lotutakoak badira.
- Euskararen erabilpena sustatzeko eta normaltzeko udal-ordenantza betetzen ez duten proiektuak badira.

### 4. ONURADUNAK

Laguntza hauek pertsona fisikoentzat dira, baldin eta:

1. 18 urtetik gorakoak badira.
2. Azken bi urteetan etengabe Beasainen erroldatuta badaude, erreferentzia gisa 2019-11-30 hartuta:
3. Kultura-arloan proiektuak edo jarduerak garatzen dituztenak edo hasi nahi dutenak badira.

Interesdunek gehienez ere 3. Oinarrian adierazitako diruz lagun daitezkeen proiektuetako birentzat aurkeztu ahal izango dute laguntza-eskaera. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROIEKTUAK/JARDUERAK



Eskatzaile berak diruz lagundu daitekeen proiektu bat baino gehiago aurkezten badu, proiektu bakar baterako bakarrik emango da laguntza. Hori, puntu gehien lortzen dituen izango da, 10. puntuan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

## 5. FINANTZAZIOA

Oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzaren zenbatekoa 15.000,00€koa da, eta honako aurrekontu-partida honen kargura finantzatuko da: 0240.481.330.00.23 sorkuntzarako dirulaguntza.

## 6. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Organo eskudunak onartu ondoren, oinarriak DNBr bidaliko dira eta GAO n argitaratu ondoren, eskabideak aurkezteko epeari hasiera emango zaio, eta 2021eko abenduaren 1ean amaituko da.

### -Modua:

Eskabidea oinarri hauetako 1. eranskinean jasotako ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta hurrengo puntuan adierazten diren agiriekin batera aurkeztuko da. Eskabideak honela aurkeztuko dira:

- Nagusiki, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez:  
<http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala>
- Posta zerbitzuaren bidez.
- Aurrez aurre, Igunean (Informazio bulegoan).

Eskaera erregistro elektronikoaren bidez aurkezten ez bada, eskaerarekin doan dokumentazioa paperean eta euskarri digitalean aurkeztuko da.

## 7. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera-orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskatzailearen edo/eta ordezkariaren Nortasun Agiriaren kopia
- Kontu korrontearen titularitatea egiaztatuko duen agiria.
- Diruz laguntzea eskatzen den proiektuaren gaineko azalpen txostena:
  - Proiektua letra-estilo eta neurria hauetako batez idatzia izango da: Garamond 12pt, Times New Roman 12pt, Courier 12 pt edo Arial 12 pt.
  - Gehienez, 5 orri izango dira bi aldetatik eta 10 orri alde bakar batetik.

- Proiektuaren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu xehatua; diru-sarreraren atalean, eskatutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko da.
- Beste diru-sarrerak dauden edo/eta beste erakunde batzuetan diru-laguntza eskatu duen adierazten duen zinpeko adierazpena.

Eskabidean edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioan akatsen bat badago edo osatu gabe dagoela balioesten bada, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei hautemandako akatsak zuzentzeko, Udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, diru-laguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe prozedura artxibatuko da.

Aukeratu gabeko lanak itzuli egingo dira, eta egileek edo horien ordezkariak jaso ahal izango dituzte, behin betiko ebazpena eman ondorengo hiru asteetan. Horrela egin ezean baztertu egingo dira eta Beasaingo Udala ez da arduratuko itzultzean galtzen diren lanez edota kopiez.

## 8. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Laguntza hauek 10. BALORAZIO IRIZPIDEAK puntuan azaldutako balorazio-irizpideak kontuan hartuta emango dira:

Kultura arloari dagokio oinarri hauetan alde zuzeneko laguntzak kudeatzea. Balorazio eta Onarpen Batzordeko Teknikariek arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz ondorengo oinarrian adierazitako balorazio-irizpideak kontuan hartuta.

Laguntzak emateko edo ukatzeko, Alkatetzaren ebazpena emango da, eta ebazpen hori diru-laguntza eskatzen duenari jakinaraziko zaio.

Dirulaguntza jasotzeko baldintza hauek bete behar dira:

- Udal Ogasunarekin zorrik ez izatea.
- Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea. Egiaztapen hori ofizios egingo da eskumeneko administrazioei informazioa eskatuz, interesduna modu arrazoituan aurka agertzen ez bada.

## 9. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proiektuak baloratzeko unean erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

- Proiektuaren interesgarritasuna, kalitatea eta orijinaltasuna/berrikuntza: 0 - 40 puntu.
- Sortzaileak garaturiko lehen lana izatea: 10 puntu
- Proiektu berean kultur disziplina bat baino gehiago erabiltzea: 0 - 10 puntu
- Beasaingo kultur arloari ekarpena egitea: 0-15 puntu
- Proiektu osoan genero ikuspegia txertatzea; hau da, bai justifikazioan, eta bai helburuetan, jardueretan, metodologian eta ebaluazio adierazleetan ere: 0-15 puntu.
- Euskararen normalizazioan eta erabileran lagunduko duten proiektuak (hedapena, sustapena, ikerketa, berrikuntza...): 0-10 puntu.

Puntuaziorik altuena 100 puntukoa izango da eta laguntza jaso ahal izateko, gutxienez, 50 puntu lortu beharko dira.

## 10. ONARPEN ETA BALORAZIO BATZORDEA

Onarpen eta Balorazio Batzordea, Herritar sailekoak diren Kultura azpiarloko teknikariak, Hizkuntza Politika azpiarloko teknikariak eta Berdintasun azpiarloko teknikariak osatuko dute.

Batzorde horrek, egoki iritziz gero, dagokion diziplinako adituen iritzia eskatuko du.

Batzorde honen zereginak honako hauek izango dira, besteak beste:

- Aurkeztutako eskaerak onartzea.
- Onartutako proiektuak aztertzea eta baloratzea.
- Diru-laguntzen kudeaketa eta lanak burutzea.

## 11. JARRAIPEN ETA EBALUAZIO BATZORDEA

Batzorde honek, gutxienez, Onarpen eta Balorazio Batzordearen kideak diren teknikariak eta Udalbatza osatzen duten alderdi politikoen ordezkari bana izango du.

Batzorde honen zereginak hauexek izango dira:

- Arduradun teknikoak urtero egin beharreko txostenaren (Egitasmo Estrategikoak kontrola eta jarraipen atalean adierazten duena) balorazioa egitea.
- Oinarri hauetan aurreikusitako helburuen lorpena baloratzea.
- Udal kultura eremuan izandako eragina aztertzea.
- Diru-laguntza hauen prozesua doitzea.

## 11. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntza deialdi honetarako gehieneko kreditu erabilgarria 15.000 €-koa izango da. Diru kopuru hau eman daitekeen gehinekora izango da.

Aurkeztutako aurrekontuaren %75a lagunduko da gehienez eta, gehienez ere, 3.000€ko laguntza jasoko du proiektu bakoitzak. Irizpide honek mugatuko ditu laguntza kopurua eta laguntza horien kopuruak.

Programa honen kontura emandako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: % 50 dirulaguntza emateko ebazpena onartzen denean, eta gainerakoa ekimena justifikatzeko dokumentazioa aurkezten denean.

Emandako diru-laguntza, bankuko transferentzia bitartez ordainduko da pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

## 12. JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUAK

Gastuen justifikazioa 2022ko apirilaren 30a baino lehen egingo da, eta honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Dirulaguntzaren xede den proiektua gauzatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Diru-sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa.
- Egindako gastuen zerrrenda eta horien egiaztatagiriak: fakturak.

Udalari aurkezten zaizkion justifikazioetan egiaztatzen bada diruz lagundutako proiektuaren azken kostua onartutako aurrekontua baino txikiagoa dela, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da aurkeztutako gastuen proportzioan, dirulaguntza ordaintzeko baldintzak kontuan hartuta.

## 13. LAGUNDUKO EZ DIREN GASTUAK

Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu moduan:

- Gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, legezko balioaz faktura edo egiaztatagiri jotzeko eska tzen diren arauzko baldin tzak bete tzen ez badituzte.
- Bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzukoak diren beste batzuen kostuak, diruz lagundutako ekin tzan parte har tzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago.

## 14. BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarriak izango dira, beti ere gain-finantziatorik gertatzen ez bada.

## **15. DIRULAGUNTZAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA**

JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUAK atalean zehaztutako datarako dokumentazioa aurkezten ez bada, diru-laguntza itzultzeko prozedura hasiko da.

## **16. ERREKURTSOAK**

Honako oinarri hauen aurka berraztertze ko errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenba tzen bi kasuetan.”

## **4.- BERRI EMATEA:**

Ondorengo ebazpenen berri eman da:

- 2021eko irailaren 27tik urriaren 24rarte emandako Ebazpenak.
- 2021eko irailaren 27tik urriaren 24rarte emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

## **5.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

### **TERRAZEN ORDENANTZA**

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu) galdetu du ea egoera berriaren aurrean zein asmo dagoen.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Tabernen egoera normaltasunera pasatu da. Hori horrela pentsatu zen urte bukaera arte utzi eta datorren urteari begira pandemia aurreko kopurura bueltatzea, mahai eta eserleku kopuruari dagokionean, baina horrek, etxeko lana ere behar du beladoreen ordenantza aspaldikoa delako eta ohiturak asko aldatu direlako. Lehen terrazak bakarrik udaran ezagutzen genituen eta orain alderantzizkoa gertatzen da. Kasu batzuetan tabernaren jardura aktiboagoa da kanpoan. Ordenantzaren izapidetzea martxan jartzen denetik behin betiko onartu arte hilabete batzuk pasatzen dira eta bitartean malgutasuna mantendu beharko dugu baina beti ere kontuan izan da barruan jardura izan dezaketenez

mahaiak kanpoan jartzea ez zaiela utziko. Pixkanaka joango gara bizitza modu berri honetara egokitzen.

Eta tratatzeko besterik ezean bileran arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.